# Biktimen arteko diskriminazio egoerak gainditzea

## Aurrerapenak eta erronkak

/ForoSozial/
@ForoSoziala
Foro Soziala Foro Social

Bake prozesua indartzeko Foro Soziala
Foro Social para impulsar el proceso de Paz
Forum Social pour impulser le processus de paix
Social Forum to promote the Peace process

# Historia laburra

2016ko ekainean sortu zenetik, Foro Sozial Iraunkorraren lan-ardatzetako bat biktima guztiek egia, justizia eta erreparaziorako duten eskubidearen alde egitea izan da, eta, aldi berean, haien artean elkarrizketarako eta entzuteko guneak sortzea.

Ildo horretan, Foro Sozialaren helburuak izan dira, lehenik, mota guztietako biktimen aurkako hitzezko edo ekintzazko diskriminazio-adierazpen oro gainditzea, giza eskubideak urratu dituzten eragileen arabera bereizkeriarik edo kategorizaziorik egin gabe; bigarrenik, pairatu dugun indarkeria-zikloaren testuinguruan egindako giza eskubideen urraketa guztiak publikoki aitortzeko beharra azpimarratzea; eta, hirugarrenik, inoiz aitortu eta onartu gabeko biktimizazioak sozializatzea.

Lan-ardatz horren adierazpen publiko nagusia “Entzunaz Bizikidetza eraikiz - Escuchar para construir la convivencia” programa izan da. Hainbat indarkeriaren biktimek beren beharrei eta eskaerei buruz eztabaidatu dute jendaurrean, baita bizikidetza eraikitzeko oraindik dauden erronkei buruz ere. Dinamika horren barruan, 23 topaketa publiko antolatu dira, eta bertan, indarkeria adierazpen desberdinetako 67 biktimek parte hartu dute.

Topaketa publikoez gain, lan-ardatz hori era askotara landu da:

- Foro Sozial Iraunkorra osatzen duten entitateen eta Estatuaren biktimen ordezkaritzaren arteko topaketa.
- Foro Sozial Iraunkorra osatzen duten entitateen eta antolatu gabeko ETAren biktimen arteko topaketa.
- Nafarroan, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Katalunian ETAren 42 biktimarekin sortutako gune diskretuak.
- Bilerak eskatu dizkiegu Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko biktimen elkarteei, baita Estatuan ordezkaritza handiena dutenei ere.

Azkenik, 2022ko azaroaren 9an, sei urteko dinamikaren ondoren, Nafarroako Parlamentuan topaketa horietako azkena antolatu zen, eta amaitutzat eman zen «Entzunaz Bizikidetza eraikiz» programa.

Bestalde, urtero, Foro Sozial Iraunkorreko ordezkariek parte hartu dute giza eskubideen urraketa desberdinen biktimen omenez antolatutako 6-8 ekitalditan.

Lan honek guztiak eman ditu bere fruituak eta, maila pertsonalean, parte hartu duten pertsonentzat oso aberasgarria izan da, solaskide askorekin konfiantzazko espazioak eraikitzea ahalbidetu baitu.

Zehazki, dinamika hauek eragina izan dute hainbat eremutan, hala nola, sakabanatzearen ondorioz errepide-istripuetan hildako pertsonen inguruan hainbat udaletan erdietsitako akordioetan; Estatuaren biktimei babesa adierazteko mozioetan; Etxerat-en adierazpenean; sindikatu guztien eta GKEen adierazpenetan; antolatu gabeko ETAren biktimak ikustaraziz, errei zentralaren eta konfiantza berrien eraikuntzan aktore aktibo gisa azalduz; eta abar.

# Egoeraren azterketa

Ukaezina da azken urteotan dinamika positibo batean sartu garela biktimen eskubideak bermatzeari dagokionez:

- Lehenik eta behin, biktima guztiek egia, justizia eta erreparaziorako duten eskubidearen inguruan 2018. urtean eraikitako adostasun politikoa nabarmendu behar da. Ordura arte pentsaezina zen aurrerapena da hau.

- Bigarrenik, Estatuaren biktimen eskubideei dagokienez, erreparazioarako tresnak abian jarri dira:

    - Euskal Autonomia Erkidegoko 12/2016 Legea.
    - Nafarroako 16/2019 Foru Legea.
    - Kriminologiaren Euskal Institutuak (IVAC) EAEn eta Nafarroan torturari buruz egindako txostenak (nazioartean abalatutako protokoloen bidez 5.181 tortura kasu baino gehiago konfirmatu dituzte).

- Nabarmendu behar dira, halaber, Estatuaren biktimekiko erakundeen ekimenetan adierazitako adostasun politiko eta sindikalak, torturagatik, salbuespeneko espetxe politikagatik eta abarrengatik eragindako biktimizazioak aitortzearen aldekoak.

- Eta, azkenik, 2021/11/30eko EPPK-k hartutako erabakia ere aipatu behar da; izan ere, ETAren biktimentzako gai zentrala izan den presoen harreren auzia behin betiko itxi zuen. Erabaki honen harrera ona ahobatezkoa izan zen guztien aldetik.

2021. urtearen amaieran Estatuaren biktimen inguruan Foro Sozial Iraunkorrak egindako barne-balantzean «kristalezko sabai» bati buruz hitz egiten genuen, hau da, aitortza teoriko bat bazegoela ikusten genuen, edukirik gabeko zerbaitetan geratzeko arriskua zuena.

Horregatik, uste genuen Estatuaren biktimen auzia 2022az geroztik konponbidearen agendan sartu behar zela, eta behar ziren adostasunak eraiki behar zirela jasaten zuten tratamendu asimetrikoa behin betiko gainditzeko.

## 2022. URTEA

Ekimen ugari egin dira:

- Torturengatik kondenatutako guardia zibilen karrera-promozioen aurrean dagoen isiltasuna nabarmentzea.
- 12/2016 Legeari espedienteak aurkezteko epea berriro irekitzeko eskaera.
- Macarena Olonak torturaren biktimei buruz egindako hitzartzearen ondoren, Diputatuen Kongresuko lehendakaritzari babes-eskaera.
- Erreakzioak Barrionuevo eta Bellochen adierazpenen aurrean.
- Melitón Manzanas, Clément Perret eta Carrero Blancori ematen dieten tratamenduari buruzko gutuna Terrorismoaren Biktimen Memorialari, biktimario izaera alde batera uzten zuelako, eta honen inguruko babes-eskaera Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari eta Gasteizko Udalari, Memorialaren patronatuko kideak diren heinean.
- «Sekretu ofizialen legeari» buruzko eztabaida dela-eta, Espainiako Kongresuko taldeei proposamenak helaraztea.
- Lasa eta Zabalaren 40. urteurrenari buruzko proposamena (2023ko urriaren 16an izango da).
- Pedro Sánchez Presidenteari Estatuak eragindako kaltea onar dezan eskatzea.
- Torturaren biktimen inguruan eraikitzen ari diren adostasunak babesteko eta laguntzeko, ekimen publiko eta diskretuak (ekainaren 26a, etab.)

Azkenaldian egindako ekimen garrantzitsuena maiatzaren 14an Donostian antolatutako mahai-ingurua izan zen, Tamara Muruetagoiena, Karmen Galdeano, Eneko Etxeberria eta Maider García Goenaren partaidetzarekin.

Axun Lasak eta Idoia Zabalzak apirilaren 6an Madrilen antolatutako topaketa batean egindako testigantzekin eta ekarpenekin, txosten bat egin genuen, Nafarroako eta EAEko Parlamentuetan egindako agerralditan aurkeztu zena (urriaren 19an eta azaroaren 9an, hurrenez hurren).

Gaurkotasun erabatekoa du dokumentu honek, eta Estatuaren indarkeriaren hainbat biktimek giza eskubideen urraketa larriak jasan dituzten pertsona gisa beren eskubideak aitortzeko eta bizikidetza demokratikorako ekarpen gisa egiten dituzten eskaeren kronika eguneratua da. Adibidez:

- Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen 290/2010 Dekretuaren erreformari aurre egitea.

- DBEri, etxebizitza eskubideari eta enplegu-politikei edo EHUko matrikuletako salbuespenei buruz 12/2016 Legeak onartzen dituen Estatuaren biktimekiko diskriminazio tratamenduak zuzentzea.

- Gainera, 107/2012 Dekretuak eta 12/2016 Legeak aurreikusitako kalte-ordainak nabarmen txikiagoak dira 4/2008 Legeak terrorismoaren biktimentzat ezartzen dituen zenbatekoak baino.

- Behar den adostasuna lortzea, errealitate-printzipiotik abiatuta, Balorazio Batzordeak 2022ko ekainaren 29ko agerraldian proposatutako aldaketak egin ahal izateko. Aldaketa horiek beharrezkoak dira espediente berriak aurkezteko epea berriro ireki ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, 2022an sortu diren bi paradigma berri azpimarratu nahi ditugu:

- ETAren biktimei dagokienez, 2022an, beren ahots propioarekin hitz egiten duten biktimek eraso eta irain larriak paratu behar izan dituzte sare sozialetan. Horien aurrean, biktimak babesteko hainbat ekimen egin ditugu.

- GAL sustatu eta tortura babestu zuten pertsonen jarrera autojustifikatzailea: Barrionuevo, Belloch, eta abar. Negazionismotik jarrera publiko autojustifikatzailera igaro dira, horrek dakarren birbiktimizazioarekin.

# Ondorioak

Alderdi positiboari dagokionez, azpimarratu behar da 2022an hasi zela gauzatzen 2018an biktima guztiek egiarako, justiziarako eta erreparaziorako duten eskubidearen inguruan eraikitako adostasuna. Eta Estatuaren biktimek sufritu duten - eta sufritzen jarraitzen duten - tratamendu asimetrikoa gainditu beharra gauzatzen hasi zen.

Azter dezagun atalez atal:

- **Erreparazioa:** Euskal Autonomia Erkidegoko legeak eta Nafarroako Foru Legea dira «erreparaziorako» ditugun tresna nagusiak. Biktimen minarekiko erabateko errespetutik diogu: positiboa izango litzateke biktimek lege horiek bereak egitea eta espedienteak aurkeztea, bide honen aurrean duten mesfidantza une batez alde batera utzita.

- **Egia:** «egia sozialetik» «egia instituzionalera» igarotzeko tresnak egon badaude: azterlanak, ikerketa-batzordeak, EAEko eta Nafarroako legeen batzordeak… Baina zaila dirudi Egiaren Batzorde bat abiarazteko behar adinako adostasuna sortzea. Era berean, gizarteak eta erakundeek orain arte baino berritzaileagoak izan beharko dute «egia» bilatzeko orduan. Izan ere, egia tresna sendagarria da biktimentzat eta ahalegin berriak merezi ditu. Baina ulertu behar dugu, halaber, horretan sakontzea ez dagokiola Foro Sozialari.

- **Justizia:** zaila dirudi biktima horientzako «justizia penala» lortzeko bidean aurrera egitea. ETAren biktimek "Terrorismoaren Biktimentzako Informazio eta Laguntza Bulegoa" dute Auzitegi Nazionalean. Baina Estatuaren biktimen kasuan ez dago eta ez da bide horretan sakontzeko borondate handirik ikusten.

Justizia Trantsizionalik ezean, egia tresna sendagarri gisa erabiltzearen aldeko apustu sendoa egin du Foro Sozial Iraunkorrak. Egiaztatu ahal izan dugunez, justizia penal zigortzaileak ez dio ekarpenik egiten bizikidetza demokratikoari, eta zaildu egiten du adiskidetzearen aldeko pausuak ematea.

Nabarmentzekoa da, halaber, ETAren zenbait biktimek, ahots propioarekin, bakea eta bizikidetza eraikitzearen alde egin duten apustua, beste biktima batzuekin ekimenetan eta solasaldietan parte hartuz.

## EGITEKE DAUDEN LANAK

1. Biktima desberdinekiko tratuan oraindik ere irauten duten diskriminazio adierazpenek sortzen duten asimetriarekin amaitzea. Tratamendu asimetrikotik berdintasunezko tratamendura pasatzea.

2. Biktima horien errekonozimenduak eta erreparazioak inpaktu sozial handiagoa izan behar dute, gure gizartean oso zabalduta dagoen ideia bat deseraikitzeko: «biktimez» hitz egiten denean, ETAren biktimez bakarrik pentsatzen da, ez Estatuaren biktimez.

3. «Gure» biktimen kontzeptuaren egungo erabilera murriztailea gainditzea. Biktima guztiak gureak dira, guztienak, gizarte osoarenak. Eta horren arabera babestu behar ditugu.

4. Generoak biktimen gaian duen eragina aztertzea.

# Superación de la discriminación entre víctimas
## Avances y retos pendientes

/ForoSozial/
@ForoSoziala
Foro Soziala Foro Social

Bake prozesua indartzeko Foro Soziala
Foro Social para impulsar el proceso de Paz
Forum Social pour impulser le processus de paix
Social Forum to promote the Peace process

# Breve historia

Desde su creación en junio de 2016, uno de los ejes de intervención del Foro Social Permanente ha sido la defensa de los derechos de todas las víctimas a la verdad, la justicia y la reparación, al tiempo que generar espacios de diálogo y escucha entre ellas.

En este aspecto, el objetivo del Foro Social ha sido superar toda expresión de discriminación de obra o de palabra hacía todo tipo de víctima, sin hacer distinciones ni categorizaciones en función de los agentes vulneradores de derechos; reiterar en la necesidad de reconocimiento público de toda vulneración de derechos humanos ocurrida en el contexto del ciclo de violencias del País Vasco; y socializar la existencia de victimaciones nunca reconocidas ni asumidas.

La expresión pública de este trabajo ha sido el programa de trabajo “Entzunaz Bizikidetza eraikiz- Escuchar para construir la convivencia”, donde víctimas de distintas violencias han debatido de forma pública sobre sus necesidades y demandas y sobre los retos pendientes para abordar un futuro en convivencia. En el marco de esta dinámica, se han organizado 23 encuentros públicos en los que han participado 67 víctimas de diferentes expresiones de violencia.

Además de los encuentros públicos, este eje de trabajo también se ha abordado de formas muy diversas:

- Encuentro entre las asociaciones componentes del Foro Social Permanente con una delegación de víctimas del Estado.
- Encuentro entre las asociaciones componentes del Foro Social Permanente con víctimas de ETA no organizadas.
- Espacios de encuentro discretos con 42 víctimas de ETA en Navarra, la Comunidad Autónoma Vasca y Catalunya.

- Solicitud de reuniones a las asociaciones de víctimas de Navarra y la Comunidad Autónoma Vasca, así como a las más representativas a nivel del Estado.
- Finalmente, el pasado 9 de noviembre 2022, tras seis años de dinámica, se organizó el último de estos encuentros en el Parlamento de Navarra, dando por concluido este programa de trabajo.

Por otra parte, representantes del Foro Social Permanente también han participado anualmente en 6-8 actos diversos de homenaje a víctimas de diferentes vulneraciones de derechos humanos.

Todo este trabajo ha sido fructífero y, en lo personal, para las personas que han participado, muy enriquecedor, pues ha permitido construir espacios de confianza con numerosos interlocutores.

En concreto, las dinámicas han tenido incidencia en espacios como los acuerdos en ayuntamientos sobre personas fallecidas en accidentes de carretera como consecuencia de la dispersión; mociones en apoyo a las víctimas del Estado; declaración de Etxerat; declaraciones en apoyo desde la totalidad de los sindicatos, ONGs; visibilidad pública de víctimas de ETA no organizadas en la construcción del carril central y nuevas confianzas; etc.

# Estado de la cuestión

Es innegable que durante estos últimos años se ha iniciado una dinámica en positivo en lo que respecta a dotar a las víctimas de los derechos que les corresponden:

- En primer lugar, la unanimidad política construida en 2018 en lo referente al derecho de todas las víctimas a la verdad, la justicia y la reparación. Un avance inimaginable unos pocos años atrás.

- En segundo lugar, en lo referente a los derechos de las víctimas del Estado de forma específica, la puesta en marcha de instrumentos de reparación:

    - Ley 12/2016 de la Comunidad Autónoma Vasca
    - Ley Foral 16/2019 de Navarra
    - Informes del Instituto Vasco de Criminología (IVAC) en la CAV y en Navarra sobre tortura (que mediante protocolos internacionalmente avalados certifican más de 5.181 casos de torturas).

Hay que destacar también los consensos políticos y sindicales expresados en iniciativas institucionales, específicamente hacia las víctimas del Estado, a favor de reconocer victimizaciones como las producidas por los años de excepcionalidad penitenciaria, la tortura, etc.

Y, finalmente, también cabe mencionar la decisión del EPPK del 30/11/2021 que cerraba definitivamente la cuestión de los ongietorris, cuestión central para las víctimas de ETA, y la unanimidad en su acogida.

En el balance interno realizado por el Foro Social Permanente a finales de 2021, constatábamos que, en lo que se refería a las víctimas del estado, se había construido un "te-

cho de cristal", un reconocimiento teórico que tenía el riesgo de quedarse en algo vacío de contenido.

Por ello, estimábamos que la cuestión de las víctimas del Estado debía entrar desde 2022 en la agenda de resolución, construyendo los consensos necesarios para superar definitivamente el tratamiento asimétrico que sufrían.

## AÑO 2022

Han sido numerosas las iniciativas realizadas:

- Constatación del silencio ante la promoción de Guardias Civiles condenados por torturas;
- Solicitud de reapertura del plazo para presentar expedientes a la Ley 12/2016;
- Solicitud de amparo a la Presidencia del Congreso de los Diputados tras la intervención de Macarena Olona sobre víctimas de la tortura;
- Reacciones ante las declaraciones de Barrionuevo y Belloch;
- Carta al Memorial de Víctimas del Terrorismo en relación al tratamiento que dan a Melitón Manzanas, Clément Perret y Carrero Blanco obviando su carácter de victimarios y petición de amparo al Gobierno Vasco, Gobierno de Navarra y Ayuntamiento de Gasteiz miembros del patronato del Memorial;
- Propuestas a los grupos del Congreso Español en relación al debate sobre la "Ley de secretos oficiales";
- Propuesta en relación al 40º aniversario de Lasa y Zabala (16 de Octubre 2023)
- Petición al Presidente Pedro Sánchez para que reconozca el daño causado por el Estado.
- Iniciativas varias públicas y discretas para acompañar los consensos que se van generando en relación a las víctimas de la tortura (26 de junio, etc);

La iniciativa reciente mas importante fue sin duda la mesa redonda organizada el 14 de mayo en Donostia con participación de Tamara Muruetagoiena, Karmen Galdeano, Eneko Etxeberria y Maider García Goena.

Con sus testimonios y las aportaciones de Axun Lasa e Idoia Zabalza en un encuentro organizado en Madrid el 6 de abril, elaboramos un informe que fue presentado en sendas comparecencias en los Parlamentos de Navarra y Vasco (los 19 de octubre y 09 de noviembre respectivamente)

Este documento, de absoluta actualidad, es la crónica actualizada de las demandas que diversas víctimas de violencias del Estado hacen para que sean reconocidos sus derechos como personas que han sufrido graves vulneraciones de Derechos Humanos y también como aportación a la convivencia democrática, como por ejemplo:

- Afrontar la reforma del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo.
- Solventar los tratamientos discriminatorios hacía las víctimas del Estado reconocidas por la Ley 12/2016 en temas como RGI, políticas de vivienda y empleo o las exenciones en matriculas en la UPV.
- Además, las indemnizaciones previstas tanto por el decreto 107/2012 como por la Ley 12/2016, son significativamente inferiores a las cuantías que establece la Ley 4/2008 para las víctimas del terrorismo.
- Construir el consenso necesario para que, desde un principio de realidad, se puedan acometer las modificaciones propuestas por la Comisión de Valoración en su comparecencia del 29 de junio 2022 que entienden, son necesarias para la reapertura del plazo de presentación de nuevos expedientes.

Por todo ello, de manera general queremos subrayar dos nuevos paradigmas que se han creado durante 2022:

- En lo que se refiere a las víctimas de ETA el año 2022 hemos asistido a graves ataques e insultos en redes sociales a víctimas que hablan con voz propia. En este terreno, hemos tenido varias iniciativas de amparo a las mismas.
- La actitud auto-justificativa de impulsores del GAL y personas que ampararon la tortura – Barrionuevo, Belloch, etc-. Han pasado del negacionismo a una posición pública auto justificativa, con la revictimización que ello conlleva.

# Conclusiones

En lo positivo, hay que destacar que en 2022 ha empezado a concretarse el consenso ya construido en 2018 en torno al derecho de todas las víctimas a la verdad, la justicia y la reparación. Y se está concretando en la necesidad de superar el tratamiento asimétrico que sufrían y sufren las víctimas del Estado.

Analicémoslo por partes:

- **Reparación:** las Leyes de la Comunidad Autónoma Vasca y la Ley Foral de Navarra son el máximo instrumento de "reparación" y, desde el respeto absoluto a su dolor, sería positivo que las víctimas se las apropiasen y presentasen expedientes a estas, dejando aparcada por un momento la desconfianza con la que afrontan el procedimiento.

- **Verdad:** en lo que se refiere a la "verdad", existen instrumentos que pueden hacer transitar la "verdad social" hacia la "verdad institucional": Informes y Comisiones de investigación, Comisiones de las leyes vasca y de Navarra, … pero parece difícil que se genere consenso suficiente para lanzar una Comisión de la Verdad, etc. Y la sociedad y sus instituciones deberán ser aún más innovadoras para dotar a las víctimas del instrumento sanador de la verdad. Pero también debemos entender que su profundización no es una tarea que incumba al Foro.

- **Justicia:** parece difícil afrontar la tarea del logro de la "justicia penal" para las víctimas. Las víctimas de ETA cuentan con una "Oficina de Información y Asistencia a las Víctimas del Terrorismo" en la Audiencia Nacional. En el caso de las víctimas del Estado, no existe y no se vislumbra mucha voluntad de profundizar en este camino.

En ausencia de una Justicia Transicional, el Foro Social Permanente hace una apuesta decidida por situar el acceso a la verdad como instrumento sanador, más que por una justicia penal de carácter punitivista que, según hemos constatado, no aporta a una convivencia democrática y dificulta dar pasos hacía la reconciliación.

Destacar, también, la voz propia de algunas víctimas de ETA en su apuesta por la construcción de la paz y la convivencia, participando en iniciativas y diálogos con otras víctimas.

## TAREAS PENDIENTES

1. Terminar con la asimetría que genera expresiones de discriminación que todavía persiste en el trato a las diferentes víctimas. Pasar del tratamiento asimétrico a un tratamiento igualitario.

2. Lograr que el reconocimiento y la reparación a estas víctimas tenga un mayor impacto social, para lograr una deconstrucción de la idea socialmente implantada de que cuando se habla de “víctimas” solo se piensa en las víctimas de ETA y no en las del Estado.

3. Superar la actual utilización reduccionista del concepto de “nuestras” víctimas. Todas las víctimas son nuestras, son de todas y todos, de toda la sociedad. Y como tales debemos ampararlas.

4. Analizar la incidencia del género en el tema de las víctimas.